Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Bautista Miner Irastorza

Urnieta, Gipuzkoa (1936)



Aurkibidea

Biografia



Urnietako Goiburu auzoko Bentan jaio zen; zortzi senidetan bigarrena zen bera. Xoxokako eskolan ibili zen 12 urte inguru bete zituen arte. Ardi kontuan edukitzen zuten askotan etxeko artaldearekin; Goiburuko inguruko etxeetan belarra ebakitzen ere aritzen zen beste lagun batzuekin batera, diru pixka bat irabaztearren. Peoi lanetan ibili zen Urnietako urak bideratzeko tubo zaharrak ateratzen eta berriak sartzen. 25 urte zituela, Begasan hasi zen lanean, altzari-lantegi batean. Urnietara bertara ezkondu zen urte horretan eta 32 urte pasatu ditu kamioiarekin garraio lanetan.

Zintak

URN-006

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Data**: 2009-12-16
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k)**: Alkorta Agirrezabala, Jon - Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Eider

URN-027

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Data**: 2010-02-17
- **Iraupena**: 88 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Gurasoek gerra garaian pasatakoak

- **Erref**: URN-006/003
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:03:58. **Bukatu**: 00:05:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Amuela baserrira joan ziren gurasoak gerra garaian. Hala ere, alabaren txupetea falta zitzaienez, etxera itzuli behar izan zuten; orduan, baina, soldaduekin kontuz ibili behar izaten zuten. Gurasoei ez zitzaien gustatzen gerrako kontuez hitz egitea.

Transkripzioa
- Juan Bautista: Geo esaten zuen Amuela basarri hoi zeon, gue aittak eta ibiltzen zuen ta han eon zien eun batzutan ta ematen zula kalmatu ote zan ta han ez zeon ezerre esaten zuenez.
- Tomas: Iñor ez zan bizi ta.
- Juan Bautista: Ya. Honek beste arreba bat du, nik'e bai. Zaharragua zun ta txupetia're galdu omen zun han.Umiak ta txupetia bihar ta atzenian holako komerikin behintzat abittu itten omen zien, honea.
- Tomas: Nik honen berrik'e [...].
- Juan Bautista: Abittu zienian, tropa omen zijuan Onyikoei berriz'e txikitzea, baiño bertan jun zian, baiño Onyin itxiya omen zeon, dana zerkatua zeak, beak behian, zuluan. Ta zerkatu hoi pasatzen hasten zienian, barrenguak tia ta bota itten omen zittuen. Kriston matantza in zuen hor, esaten zuen. Ta geo, bintzat etsi ta bestea atzea ta baiño Amuelatik abittu ta hua ikusi zunen, ostea buelta eman ta Amuela jun zien, aitta-ta. Ez zitzaien gustatzen gerrako kontuk esatia. Haik oso, beak pasako zittuen pasatakuak eta ez zuen aittu're ein nahi izaten. Baiño holako gauzak.

2. Xoxoka eta Eusebio soinu-jotzailea

- **Erref**: URN-006/006
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:11:39. **Bukatu**: 00:13:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Beraien baserria Goiburu auzoan dago. Xoxoka izenaren jatorria azaltzen du: baserri baten izena zen; eta, bertan, soinua jotzen zuen Eusebiok. Ilunabarrean, kalera jaisten zen hura; eta, pixkanaka, ospea hartu zuen. Eusebio nongoa zen aipatzen du.

Transkripzioa
- Bai. Alturan dao ta hor bertan dao azpiko aldin, hemendik hirurehun metro.
- Bueno esan zagun denda ze auzotan daon ere.
- Goiburu.
- Goiburu auzua da?
- Goiburu auzua.
- Xoxoka deitzen diou batzuk.
- Bai baiño Xoxoka da konkreto, "o sea" bea, ez da barriyoa. Xoxoka da etxian izena zan leheno, basarri batena.

- Eta Xoxokak ordun, kasik auzuai izena eman bezela in dio, ez?
- Bai.
- Askok esaten deu: “Xoxoka aldea jungo gea”.
- Bai, hemendik kanpoa ateatzen baldin bazea, "nungua haiz?" ta "Xoxokakoa" esaten da. Guk ya ez, baiño han inguruko baserrik bai.
- Ya, ta hoi zer dela-eta? Xoxoka zer zan ba?
- Xoxoka zan basarri bat. Nik ez dakit zeatik jarriya izango zan izen hoi.
- Zer holako inportantzia emateko inguruai eo?
- Bai, hor, horrek bakizu ze izango zun, zeatik inportantziya? Leheno soiñua jotzen zun hor. Billera bezela izaten zan hor. Auzoko bat zan soiñu jotzen zuna, Eusebio Orkaizagirre eta berez ikasitako soiñuakin jotzen zun ta ordun, jendia bastante ibiltzen zan ta horreatik uste det zea hartu zula.
- Ordun, Hernanin Oialumek?
- Holaxe, holaxe. Gutxi gorabehera hola hartuko zun.
- Ze jende juntatzen zan? Zu zeorri're ibili al ziñen hor?
- Ba gutxi-gehio bai. Geo itten gendun, iñularrean hor saiua in ta kalea jeixten zan Eusebio ta arkupian jotzen zun berriz ta. Jendia biltzen zun, egiya, besteik ez zan ezer ta.
- Aizu ba egun guztiko soiñua jotzia izaten zan?
- Ez, atsaldetan, atsaldian izaten zun, jai atsaldetan.
- Nongoa zen Eusebio?
- Ba aldamenekua, etxian izena Oiarbide. “Oiarbi”, guk “Oiarbi“ esaten diyou. Ez dakit Oiarbide eo Oiarbi dun. Oiarbi, gue hizkeraz behintzat “Oiarbi“ esaten diou.

3. Denak ahariaren atzetik

- **Erref**: URN-006/009
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:15:32. **Bukatu**: 00:18:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Behin, Idiazabalgo artzain baten ahari bat ekarri zuten etxera. Udazkenean, San Migel inguruan, ahari denbora etortzen zenean, ordea, artzain horrek berekin eramaten zuen. Ahariari kontu egin behar izaten zitzaion. Ahari onaren ezaugarriak aipatzen dituzte: gorputz ona, kolore gorri-horia... Beraien ahariak kolore iluna zuen, baina ahari ederra zen. Denak saiatzen ziren ahari hari etekina ateratzen, arkumeak izan zitzaten.

Transkripzioa
- Guk behin ekarri gendun, Idiazabalgo artzai bat eoten zan hemen, Urnietan negutzen, "o sea", negua pasatzen ta handik ekarri gendun ahari bat ta zan ahari bikaiña, hemengo aharik baiño mardutxuo, haundigoa ta ahariren bat etortzen zanian kendu itten ziguen. Hartu ta bere arditara eaman. Haren umiak izateko.
- Han bolada batian ibili.
- Bai, udazkenian izaten da hemen gutxi gorabehera. Bestela ez zan izaten arkumeik. Ta udazkenian izaten da San Migel inguru hortan, ahari denbora-o esaten giñuna ta ordun egunien bitan askotan jun nitzan ni. Goizian jun ta etzanda daon tokin harrapatzen zenun ahariya. Uzten bazendun geoxoako, baten batek eaman ta arrastoik be geatzen giñan. Illuntzian'e bai jun ta aseuratu, aber ardikin geratzen dan ta hortako kontu itten giñun

ahariai.
- Ta ahariai kontu in behar ordun, ze ibiltzen zen auzuan bere kaxa ibiltzen zen?
- Bere kasa juten bazan, ordun bai izaten zan. Hartu ta eaman igual itten zittuen mendi batetik bestea ta kontu in behar izaten zan, bestela.
- Ahari ona zer da? Nolakoa da? Artzai bakoitzak bere zea du, ez? Mutur beltxa gustatuko zait ta bestiai adarduna ta bestiai ez ta? Zuentzat zer da ahari politta?
- Gorputz onekua aurrena behintzat ta baakizu koloria batzuntzako inportantea izaten zan. Jeneralian, gorri-hori kolore hoi maitte izaten zan, baiño gure horrek illuna zun, gris illuna. Baiño zan, lehen esan dedana, larrigoa ta ahari earra zan. Jendiak ez zun errespetatzen. Ahal baldin bazan haren umiak bihar, danak.
- Baiño eskatu eo ingo zizuen, ezta?
- Bai zea!
- Ez? Eaman? Hartu ta eaman?
- Eskatu ezkeo ez zeon emateik. Ardik arkea pasatzen zian ta arkumeik be geatzen ziñen geo, ahariya ez zeon iñoi emateik tenporada hortan. Horreatikan kontu in bihar izaten zan, ardik ahari gabe ez eoteagatik.
- A ze errespetu gutxi, ezta?
- Bu!
- Ahari politta izateagatikan jo ta bestiai kendu ta.
- Bai, bai.

4. Animaliak arreske

- **Erref**: URN-006/010
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:18:15. **Bukatu**: 00:19:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Animaliak arreske daudenean, animalia bakoitzarekin zer izen erabiltzen den azaltzen du.

Transkripzioa
-Arkera izatia ardiak, zer da?
-"Celo", "susa" edo ez dakit nola dan.
-Behian kasuan izango da...
-Susa.
-Animalia bakoitzak badu bere zera... Ardia?
-Zerriya irausi, ardiya arkera, astua igel, ta behorra ere bai.
-Astoa ta behorra igual.
-Zakurra alta... Bakoitzak bere...
-Besteikan hola? Beste haziendarikan hemen ez da apenas izan, ezta?
-Ahuntza ere arkera izaten da, jakina. Katuak-eta ez dakit nola izaten dun...
-Ahuntza arkera ez da izaten. 'Ahuzkera'. Esaera diferentia.
-Bai, e?
-Ahuzkera.
-Aittu gabe nengoen behin ere.
-Ahuntza adierazten du horrek. Ahuzkera.

5. Zumitzezko gazta ontziak egiteko pausoak

- **Erref**: URN-006/013
- **Iraupena**: 0:04:06. **Hasi**: 00:20:51. **Bukatu**: 00:24:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Gazta egiten zuten garai batean. Artzain bati eramaten zioten esnea, eta hari eskatzen zioten gazta egiteko. Eskuz egiten zituen. Gazta ontziak zumitzezkoak izan ziren eta horiek nola egiten ziren azaltzen dute.

Transkripzioa
- Tomas: Gazta atzeneko urtetan, gazta itten zan etxian zeozer, baiño geo mendia eamaten gendun ardik eta han zeon Joxe Iñaxio artzaiya, mutil soltero bat.. Zaharra zan. Ehun ta, ehun ta bat urte zittun hor, bizi izan balitz. Gure aittan kinttua zan. Ta hua han eoten zan txabolan, Adarra mendiyan [hauztin]
- Juan Bautista: Adarrako Zabala esaten zitzaion.
-Tomas: Adarrako Zabala. Eta ordun, hari eaman ardik ta gazta itten zun erdira, biyontzako erdi bana. Geo astian behin astuakin juten giñan, harentzako jana zeozer hartu ta geo gaztak ekarri. Asko ez zan izaten, pixkat. Baiño zianak...
- Nolakoa hau da?
- Tomas: Gazta koskor batzuk.
- Juan Bautista: Jakiña! Esnia gutxi izaten zan-ta gazta...
- Tomas: Egunian bi eo ez dakit ze itten zittun. Astuakin behintzat, ekartzen giñun ta.
- Lehengoko tresnerik'e prentsak eta holako kontuik izaten zan.
- Tomas: Ez zeon prentsik. Prentsik ez zeon. Eskuz, eskuz. Prentsa oaindik berriya da bastante. Berriya. Berrogeita hamar urte-eo.
- Ya. Ta ze tresna izaten da, ba al dakizue zuek gazta iteko malatsak-eta holako zeozer, ba al dakizu zer izaten dian?
- Tomas: Gazta iteko zea, ez du ezerre.
- Juan Bautista: Malatsa ta zumitza. Zumitza ta kitto.
- Tomas: Zumitzak egurrezkuak zien, ordun. Joxe Iñaxio beak itten zittun gaiñea.
- Beak itten zitun?
- Tomas: Bai.
- Juan Bautista: Zumitza, zumitza esaten zan. Zumitzakin indakua izaten zan. Tartien txulo, ez dakit nola esplikatu, hola kruzian izaten zian, zumitzoik. Ta jun ta hemen, kantoi bakoitzian txulo txiki batzuk izaten zittun zumitzak. Nonbaittetik jun behar zun.
- Tomas: Gaztan likidua.
- Juan Bautista: Ba akabo! Haik han bukatzen zan.
- Nik ez det ikusi zumitzazko zeaikan. Oain molde horrei gazta sartzeko, molde horrei zumitza deitzen zaio oaindik, baiño oain dia plastikoa.
- Tomas: Hortik dator, bai baiño.
- Zumitzazkoik ez det ikusi.
- Juan Bautista: Zumitza hua zan. Hok plastikozkok.
-Tomas: Zuk ikusiko ziñun, uztaiak. Ba hoixe. uztaia bezelaxe itten zien gaztaiñan...
- Juan Bautista: Gaztaiñan materialakin.
- Ordun bik jarri kruzian edo?

- Juan Bautista: Bi eo lau-eo.
- Tomas: Ez. Gehio izaten zittun.
- Juan Bautista: Buelta hartu, tapatu arte, kubritu arte.
- Tomas: Txikiya zea, zumitz txikiyaguakin itten zuen, errexao.
- Juan Bautista: Bai, nik eskuba jarri dit, baiño igual bi bihetz, bi bihetz zabalekua eo bat eo.
- Harekin kruzatuz?
- Tomas: Bai. Zextoan, zextoan borobill hoi. Igual-iguala.
- Ta gero hua gora zeatu beharko zen?
- Juan Bautista: Hua itten zuen beotu ta ez dakit ba. Egosita-eo.
- Tomas: Ez, zumitza urian eoten dek. Zea gaztaiña urian eoten da, putzun. Gero hari hua atea ta.
- Juan Bautista: Bai, baiño okertu.
- Tomas: Ez, ez. Hoi besteik be itten diyek. Ez duela besteik itten. Zestua itten ez al dittuk ikusi?
- Juan Bautista: Bai, baiño eskuadran itten zitten. Eskuadra itten zuela, zean ipurdin oso doblatuta.
- Tomas: Hoixe. Baiño oaingo zextuak ez al dituk ikusten? Hoi hola. Hoi egoten dia urian-eta eoten dia biguñak oso. Gaztaiña bihar izaten du gaztia.
- Juan Bautista: Materialak beti putzun eon behar izaten du. Igual urtebetian eo bin eukitzen due.
- Tomas: Klaro, hoi negun botatzen dia ta geo urte guztin eoten da putzun.

6. Gazuraren garrantzia

- **Erref**: URN-006/015
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:25:50. **Bukatu**: 00:28:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Gaztak egiten zizkien artzainak gazurarekin zer egiten zuen aipatzen dute. Lehen, gaztari gazura botatzeko jakin beharrekoak.

Transkripzioa
- Tomas: Gazurakin Joxe Iñaxiok itten zun gauz bat, seuru ez dakit nola itten zun, baiño hik ez huan behin´e edan?
- Juan Bautista: Ze itten zun?
- Tomas: Gatzura itten zun egosi. Egosteko momentu hartan gazura dakan zea guztiya gaiñea ateatzen zitzaion, esniai gaiña bezela. Hua kendu eta ibiltzen zun ontzi batetik bestea botaz ta ordun eozein gauza ona izaten zan, baiño hua netzako oso ona zan.
- Juan Bautista: Joe, ze traguak itten genittun.
- Tomas: Pixkat izaten zun, esne gutxi-ta, baiño hua ikearri goxua zeon. Nik itten ikusi izandu nun,
- Jun Bautista: Nik neikua, askotan edan nun.
- Tomas: Behin baiño gehiyotan ikusi...
- Juan Bautista: Pixa itteko ez dao holako materialik. Zerbeza earra izango da, baiño gatzura da, bueno!
- Tomas: Baiño gatzura, gatzura, gatzura ez da izaten. Harek itten zuna matoia zeatu, loritu. Zeaatu itten zan, gaiñea biltzen zan eosteko momentu uste det. Ordun, hua gaiñegua kendu.

- Juan Bautista: Kendu ta geo...
- Tomas: Gaiñegua untzi batetik bestea.
- Juan Bautista: Eman ta eman. Bolara batian, batetik bestea.
- Aparra atera edo?
- Tomas: Ez. Apittu bezela.
- Juan Bautista: Ez, esnia, esne galdua bezela geatzen zan. Ta oso janari ona zan hua. Erabiya, ez dakit nola esan.
- Tomas: Harek seuru asko alimentua're izango zun.
- Juan Bautista: Geo gaztai bukaeran'e handik botatzen ziyoen e.
- Tomas: Bai, gazta azalak zeatzeko beti.
- Juan Bautista: Beotu ondo ta harek tela bezela itten ziyon gaztai gaiñian.
- Tomas: Leun-leuna gelditzen zan gazta.
- Juan Bautista: Xuabe-xuabe-xuabia. Oain'e botako dio igual, ez dakit.
- Tomas: Oain ez.
- Juan Bautista: Hor gordiña bota behar zaio. Bat'e ez.
- Tomas: Bat'e ez.
- Juan Bautista: Bat'e ez seuru asko.
- Tomas: O beste, beste teknika batekin itten due lana oain.
- Enpresatan-ta dena.
- Juan Bautista: Ordun gazta itten zan estutu ahal dan guztiya ta azkenian, gatzura botatzeko, arramaskatu dena.
- Tomas: Azala itten zitzaion.
- Juan Bautista: Azala zea hoi ta ordun bota ta berriz'e estutu ta berriz'e azkazalakin-o, azkazalakin. Buelta eman ta dana arramaskatu ta berriz'e bota ta estutu. Ta holaxe lixo-lixo geatzen zan gaztan gaiña ta jira.
- Tomas: Hua azala itteko zala esaten zuen, ez dakit.

7. Gatzagia lortzeko pausoak

- **Erref**: URN-006/018
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:29:46. **Bukatu**: 00:32:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Gatzagia arkumearen urdailetik nola lortzen zuten aipatzen dute. Gatzagi gutxi behar izaten da gazta ona egiteko.

Transkripzioa
- Bueno, geo esnia berotu ta zeozer bota beharko zaio? Zeozer.
- Tomas: Gatzagiya botatzen zitzaion.
- Ta gatzagiya zer zen naturala o?
- Tomas: Ordun bai.
- Juan Bautista: Ordun bai.
- Ta nola konsegitzen zen gatzagi hoi?
- Juan Bautista: Hoi etxian izaten zan.
- Tomas: Arkumiai, arkumian estamugua da hoi. Ez al dezu ikusi behin hola?
- Ez. Hemen nonbaite ez. Legamia ta hoik bai, baiño.
- Tomas: Hoi kendu arkumia hiltzian, estamugua kendu bi puntetan zea...
- Juan Bautista: [...] bezela izaten da, bi puntetan hestia.
- Tomas: Zea sarrera esniana ta atera tripa.
- Juan Bautista: Atera.

- Tomas: Ta haik biyak lotu, txintxilik jarri ta sekatzen zun, kontserbatzeko.
- Juan Bautista: Hua kontserbatu itten zan txintxilik jarrita.
- Tomas: Seko-seko itten zan. bueno seko-seko, aber barrenen zea eukitzen zun.
- Juan Bautista: Geo puxka txiki bat kendu.
- Tomas: Oso ttikia're nahikua izaten du, hestia belaxe galtzen du.
- Juan Bautista: Gutxi izaten gendun guk eta gutxi nahikua izaten zan.
- Tomas: Baiño gehiegi're txarra dala uste det.
- Hoi tamaiña politta da e, gutxi izaten zun ta gutxi nahikua zan.
- Tomas: Ez baiño gutxi nahikua du e, asko botatzen badiozu usai fuertia uzten diyo.
- Juan Bautista: Gero kutxare batian-eo urakin; aztaka, aztaka, aztaka itten zendun, ahal dan fiñena in, zea likidotu dena ahal baldin bada, bota ta zeakin nahastu.
- Harekin berotu eo berotzen zanian bota?
- Tomas: Ez, ez. Beruai bota.
- Beruai bota.
- Juan Bautista: Beruai bota.
- Tomas: Hua bota. Hoi zuk esaten dezun malatsa.
- Juan Bautista: Malatsakin nahastu.
- Tomas: Nahastu.
- Juan Bautista: Hamar bat minutua-o ya hartuta, hartzen aitzen zan.
- Ya gatzagi horrek ze efektu itten dio?
- Tomas: Mamiya itten du horrek, mamittu.
- Juan Bautista: Mamittu.
- Tomas: Baiño gatzagiak'e badu bere inportantziya. Gehiegi botatzen baiozu, gatzagiya izaten da oso fuertia, usai oso fuertia.
- Juan Bautista: Tejua, tejua nahastu...
- Tomas: Tejua nahastu. Ordun, oso pixkat nahikua do. Honek esan duna oso gutxi izaten zan, baiño aparte gutxi nahikua.
- Gutxi nahikua.
- Juan Bautista: Oso gutxi. Puxka ttiki-ttiki bat gatzagi ona baldin bazan oso gutxikin.
- Tomas: Oso gutxikin.

8. Ilearekin zer egin jakin ezinik

- **Erref**: URN-006/019
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:32:06. **Bukatu**: 00:33:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Arkumearen urdailak ilea bazuen, ez zuen gatzagia egiteko balio izaten. Ilea ez da desegiten, eta arazoak izaten dituzte harekin zer egin erabakitzeko.

Transkripzioa
- Juan Bautista: Geo gatzagiyak bihar izaten zun belarrik-eta jan gabia.
- Belarrik jan gabia. Ordun.
- Juan Bautista: Arkumia.
- Tomas: Esnia.
- Juan Bautista: Esniakin [...]. Izaten zun asko illia, estomagu hortan.

- Tomas: Bai.
- A bai?
- Juan Bautista: Amai jaten ziyon, jaten diyo arkumiak jeneralian ta han eoten zan dijerittu eziñik hua. Ta azkenian sekatzen zanian, irikitzen zendun ta illez betia izaten zan.
- Tomas: Estomagua pelota bezela geratzen zan. Zea illia, hua ez zun...
- Ze gauza, hua ez da iñun'e desegiten
- Tomas: Illia, illia da gauz bat ez suak erretzen du, ez bota ta usteldu itten da.
- Gauza zikiña.
- Tomas: Zikiña, zikiña.
- Juan Bautista: Bai, plastikua bezela.
- Toma: Atzenian zikiña.
- Bai.
- Tomas: Ta oain ezerk ez du baliyo ta jende askok aurten ta bildu in dittue baiño izandu zian urte bat eo bi bildu´re ez zittuenak. Ta itten zan errekan-eo bota, baiño handik bost urtea're hua han eoten da.
- Bai ba. Noa botatzen dezu hoi, noa bota?
- Tomas: Horri zeozer.
- Juan Bautista: Galarazi in zuen geo botatzia're.
- Tomas: Noski! [...] Hola botatzia galaziya, ez dakit, basureta eo ez dakit noa noaiño jungo [litzaken].
- Juan Bautista: Otzaurten askotan pasatzen zan, ibiltzen giñuan mendin-o ta. Badoa artzai bat txabolan atarin hemengo ohia jotzeko moduko pilla.
- Tomas: Bai baiño hemendik bost urtera...
- Juan Bautista: Harek ez du ezertako baliyo ta ez du sekula ez da ustelduko.
- Tomas: Eta eunen batian haiziak-eo hartuta.
- Juan Bautista: Harek bezela beste askok eukiko du hoi. Pillan jarrita danak.

9. Beraien baserri inguruko lekuen izenak

- **Erref**: URN-006/024
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:41:05. **Bukatu**: 00:42:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Beraien baserri inguruko toponimiaz hitz egiten dute.

Transkripzioa
- Hemengo mendik zein dia?
- Tomas: Hemendik gora abittu ta lehenbiziko kurbai beti Zulana esan diyou. Hoi askok ta askok ez dakiye. Beti Zulana. Hor beheko hoi Inbutikaxkua.
- Nola?
- Tomas: Inbutikaxkua.
- Inbutikaxkua.
- Tomas: Ez dakit zeatik esaten zaion. Hor behian.
- Juan Bautista: Hauzko mendi ttonttor, ttonttor bati berriz Basaun.
- Basaun. Basaun? Hoi etorriko da ba basajaun eo hoitako zerbaitetik.
- Tomas: Ta hoi, hoi mapetan ta zean eongo da. Hoi eongo da.-

- Juan Bautista: Basaun.
- Non dao Basaun?
- Tomas: Horixe, hementxe.
- Juan Bautsita: Hementxe. Hemendik bistan.
- Tomas: Hortxe.
- Juan Bautista: Mendi ttonttor bat da.
- Hernani aldea?
- Juan Bautista: Bai, baiño Urnietan e.
- Tomas: Hemendik bostehun metroa, bertan do.
- Juan Bautista: Oain gaiñea puntta-punttan etxe bat in due, ttonttor-ttonttorrian.
- Tomas: Geo beheko erreka horri Errotaxar.
- Juan Bautista: Bai.
- Tomas: Ahaztua [...] e!
- Juan Bautista: Errotaxar? Bueno ez naizelako bihartu´re baiño geo behera Errekabeltz. Erreka hoi bea aurrena Errotaxar.
- Tomas: Errekabeltz´e uste det dola zean, azaltzen dala uste dit, mapa hoitan ta, uste det.
- Juan Bautista: Bai, Errekabeltz inportante xamarra da.
- Tomas: Geo itturriya herriako itturriya're handik etorri zan, aurreneko itturriya-ta.
- Juan Bautista: Gero, zenbat izen, Jesus!

10. Errotazar errotako harria

- **Erref**: URN-006/025
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:42:32. **Bukatu**: 00:44:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:
Errotazar errotako harria non dagoen azaltzen dute.

Transkripzioa
- Tomas: Geo Errotaxar hortako errotarriya, errotak zun harriya, gue basarria hor beheko hoi huan [...] bidian, Learreta ta [...]. Atian gaiñeko harriya batetik besteaiñokua ta hangua zala aittak esaten zun.
- A bai? Errotarriya?
- Tomas: Errotarri haittakua omen da. Ez da borobilla ta e, kuadrokua da baiño.
- Juan Bautista: Kuadroa ez.
- Tomas: Beno, rektangularra da baiño.
- Juan Bautista: Mahaia bezela.
- Tomas: Baiño izango dittu bi metro ta erdi luze ta hau.
- Juan Bautista: Hau baiño zabalo.
- Tomas: Ta loriya. Hua nola ekarri ote zuen ta nola altxa ote zuen?
- Juan Bautista: Hombre, elizetako harrik´e.
- Tomas: Bai, bai; igual, igual.
- Juan Bautista: Ordun'e esaten zuen oholez bete altura ta lurrian ematen zittuela arrastaka ta pareta altxatzian berriz'e bete. Beti hola juten ziala gora.
- Tomas: Elizak-eta garai haittan ze aginttea eukiko zun, ze indarra. Baiño hoi basarri hortan harri hoi [...] ta ez dakit hua milla ta bostehun kilo-eo

izango da harri hoi.
- Hainbesteñekua baldin bada.
- Tomas: Bai, bai.
- Juan Bautista: Eten ttiki bat´e bai ixkiñan.
- Tomas: Bai, baiño zartatu ttiki bat, bere [...] mantentzen da baiño harri hua oso gogor ziok. Oain gaiñea, garbi-garbin jarri diek ta hola [...].
- Juan Bautista: Usteldu ez dek ingo.

11. Errotazar egondako lekuan gaur egun presa

- **Erref**: URN-006/026
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:44:03. **Bukatu**: 00:45:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:
Errotazar zegoen lekuan, presa txiki bat egin zuten. Han, uztarriak egiten zituzten. Ubillos anaiak ziren uztargileak. Pagoa egur egokia izaten da uztarriak egiteko.

Transkripzioa
- Errota hura zer zun erorita hola aspaldi?
- Tomas: Bai, Errotaxar ezer ez dao.
- Juan Bautista: Errotaxar ezer ez do; erreka besteik ez do.
- Errotaik ez da gelditzen ordun?
- Juan Bauitsta: Ez, ezerren muestrarik ez do.
- Tomas: Gero in zuen hor presa ttiki bat, zeak uztargilleak han itten zittuen.
- Juan Bautista: Pagoerdikuak.
- Tomas: Seuru asko ganaduk ura eateko iña-eo hola igual izango da, presa ttiki bat.
- Juan Bautista: Azpindiko [...] danak harea juten ittuan.
- Tomas: Ta uztargik itteko materiala eukitzen zuen, leheno esan deun zumitza itteko zea bezela, uztarrilla're urian eoten da.
- Presa hartan?
- Tomas: Bai.
- Juan Bautista: Pagua izaten zan uztarrik itteko.
- Tomas: Hoik paguak dia.
- Zein zen uztargillia hemen?
- Tomas: Hemen Pagoerdi, hemen hortxe dao baserriya bixta-bixtan.
- Juan Bautista: Hemen bi anai zian.
- Bizi al da?
-Tomas: Ez hil zian.
- Hil zian?.
- Juan Bautista: Eulogio Ubillos ta Alejandro Ubillos. Bi anai aitzen zien hoik.
- Ya. Ta paguakin itten dia uztarrik?
- Juan Bautista: Bai.
- Tomas: Bai. Bueno piñuakin igual-igual itten dezu, haritzakin igual baiño pagua zan, pagua zan.
- Juan Bautista: Bai baiño laneako.
- Tomas: Laneako paguakin itten zuen.
- Piñuk ez due hainbeste indar izango igual?

- Juan Bautista: "Qué va". Aguantia´re.
- Tomas: Nik ez dakit zeatik itten zuen paguakin.
- Juan Bautista: Aguantia paguak.
- Tomas: Haritza're material ona izango du, baiño.
- Juan Bautista: Baino oso pixua. Pagua sekatu ezkeo, baiño haritzak pixua paguan alden.
- Tomas: Zerbait´e izango zun.

12. "Harrapazka eguna"

- **Erref**: URN-006/028
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:46:56. **Bukatu**: 00:48:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
"Harrapazka eguna"ren nondik norakoak aipatzen dituzte: "iñostarra" (iraztorra edo garoa) ebakitzeko eguna izaten zen, eta goizean goiz hasten ziren lanean, suziriaren eztanda entzun ostean.

Transkripzioa
- Zer zen "Harrapazka euna"?
- Tomas: "Harrapazka euna" zan, iñostarrak ebakitzen hasteko euna. Bitarten, ez zakazun hasteik. Herri-terrenoak eta zillegi-terrenoak eta zea hoik zian. Lote batzuk zeuden. Lotez aparte, beste puska batzuk zien, kanpon geatzen zienak, loteik ez zuenak ta ordun zu goizian jun ta han in bihar zendun markatu. Bueno, markatzen-ta nik ez nin ezautu.
- Juan Bautista: Markatu, hasi. Bazekiken gutxi gorabehera jendiak nundik noa zien.
- Tomas: Sailla behintzat hasi in behar zan.
- Juan Bautista: Ta jun ta hasi. Zui hobena iruitzen zazuna eo eokina eo iñostarrik haundina eo goxona eo.
- Tomas: Baiño zeiñek harrapatzen zun?
- Juan Bautista: Zu hasten baziñan, hua zutzako zan.
- Tomas: Baiño goizian Adarrako puntan etxeferoa tiatzen zuen ta ordun hasten zan, hasten omen zan. Nik etxeferoa tiatzen ez nin...
- Juan Bautista: Ez, nik'e.
- Tomas: Baiño geo, nik uste det guk ezautzeako lotiak iñak zeudela, bakoitzak bere lotia.
- Juan Bautista: Bai ba. Ordun hoi izaten huen inportantia, jun ta hasi.
- Tomas: Ez, ez, ez. Hoi lotez apartekua huan beste ohittura hoi. Lotez aparte.
- Juan Bautista: A "fecha" utzita alegiya.
- Tomas: Ez, ez. "Diez de septiembre" hasten zuen, hua hasteko euna. Bitarten ez zekaean ez batian ta ez bestian, baiño lotiak zeken markatuta...
- Juan Bautista: A geo bai. Bakoitzak beria.

13. Eskolara, egurra moztera

- **Erref**: URN-006/030
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:49:59. **Bukatu**: 00:51:28

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskolan gutxi ibili izan da; askotan, maistrari egurra moztu behar izaten zion. Aita zinegotzi izan zen urte askoan. Gerora, Juan Bautista Xoxokako gaueko eskolara joaten zen tarteka, eta ia beti aizkorarekin joan behar izaten zuen.

Transkripzioa
- Eskolan gutxi ibilli naiz, ta askotan lanea juten nintzan eskola.
- Lanea?
- Bai. Aitta kontzejala zan urte askuan, ta aixkora bizkarrian hartu ta joaten nintzan ni eskola, askotan.
- Ze izaten zen zure lana?
- Ba maistrai egurra txikitu. Bestiak rekreuan, bakizu, ordun rekreua esaten zan, jostatzea, ateatzea. Ni hortik [...] ber izaten nun askotan. Ta gero're, gabeko eskola juten giñan, tarteka. Ta iya beti aixkorakin jun bihar izaten nun.
- Gabeko eskola're?
- "Hombre".
- Nun ibili ziñaten?
- Xoxokan. Unibersidadia.
- Xoxokako Unibersidadia
- Hoi da.
- Zenbat urte arte?
- Ba hamaika bat urte arte o, ez dakit, hamabi... Zea, eskolako obligaziyua o bidia hoi gendun. Jun ez giñan juten erditan'e. Beti izaten zan ardiya o behiya o idiya o...

14. Soroko lanak eta tresnak

- **Erref**: URN-006/032
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:52:19. **Bukatu**: 00:54:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Soroko lanak eta tresnak azaltzen dituzte.

Transkripzioa
- Zer pasatzen zen aurrena soroakin?
- Tomas: Goldia, goldatu. Bueno, aurrena-aurrena jeneralian kirrimarrua zan.
- Hoi zer zen?
- Tomas: Muellezko hortza batzuk zittun, muellea itten zuen hortz atzian.
- Juan Bautista: Hola kurban.
- Tomas: Lurra atzeatu itten zun, muittu azala.
- Juan Bautista: Txapa, pletina lori bat balitz bezela, kurbatuba ta harek

“ta, ta, ta” tiraka beti heltzen juten zan hua. Irikin hua pasatzen zan, harekin pasatzen zan.
- Tomas: Lehenengo, lanik haundina itten zula uste det gaiñeko belar zikiña ta muittu itten zun ta galtzeko, galtzeko.
- Tomas: Azala, azala hautsi.
- Juan Bautista: Hua lehortzen.
- Haren atzetik? Haren ondotik?
- Tomas: Goldia.
- Juan Bautista: Simortu. Ahal dan guztiya ta geo goldetu.
- Tomas: Buelta eman lurrai.
- Ya. Ta goldetu ta geo, berriz, ximortu bai?
- Ez.
- Ez zan beharrik?
- Juan Bautista: Jeneralian ez.
- Tomas: Ximorra're ez zan izaten.
- Juan Bautista: Eta gero harria beste hortza zorrotza hoikiko.
- Tomas: Rastra, rastra bestia.
- Juan Bautista: Rastra´re bai.
- Tomas: Bueltaka ibiltzen zian hortza batzuk.
- Juan Bautista: Hortzaz betetako rollo batzuk. Bai dana zulatu itten zuen, goldeakin jirautako zoilla-o, zoilla esaten zaio horri.
- Goldiak itten zun lan hoi, laiakin ta zoillakin ezautu al zenun?
- Tomas: Ez. Nik ikusi dittut hola baratzatik ta laiakin ai diala, baiño beste lehengo zea hua ez, guk beti goldia.
- Ta goldia ze izaten zen? Eurrezkoa, burnizkoa?
- Burnizkoa, burnizkoa.
- Dena?
- Dena burniya bai.

15. Lurrazpitik uraren hodiak ateratzen

- **Erref**: URN-027/003
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:03:15. **Bukatu**: 00:06:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Hamabi urtetik aurrera, peoi lanetan aritu zen; urarentzat zangak egiten edo egurra botatzen, esaterako. Azkonietako basotik hodiak lurrazpitik ateratzen aritu zen. Urnietako herrira ura ekartzen zuten hodiak ziren.

16. Peoi laneko soldata

- **Erref**: URN-027/004
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:06:52. **Bukatu**: 00:08:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Tomasek ogitartekoa eramaten zion Juan Bautistari, hodiak ateratzen ari zenean. Gero gripeak jo zituen etxeko denak. Metroko hemezortzi pezeta ordaintzen zieten. Soldata etxerako izaten zen.

17. Azkonietako hariztia botatzen

- **Erref**: URN-027/005
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:08:39. **Bukatu**: 00:11:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Andoainen beste hodi bat atera beharra izan zen baina ez zuen denbora asko egin han. Azkonietako basoa hariztia zen; zuhaitzak bota eta ateratzen lan egin zuen. Asko jaten zuen orduan. Zerrategian saioa egin eta gaueko eskolara joaten zen, baina ez omen zuen ezer ikasi.

18. Altzibarko Claudiori zigarroak egiten

- **Erref**: URN-027/006
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:11:45. **Bukatu**: 00:13:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Eguna lanean pasa eta gero, ez zuen garai hartan lan handirik egin behar izaten. Altzibarko Claudiori zigarroa egiten aritzen zen.

19. Belarrak ebaki eta harrobira

- **Erref**: URN-027/007
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:13:24. **Bukatu**: 00:15:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Udaberrian inguruko belarrak ebakitzen aritzen ziren goizean goiz. Non aritzen ziren kontatzen du. Gero, zortzietarako harrobira joaten zen lanera.

20. Orduko segak

- **Erref**: URN-027/008
- **Iraupena**: 0:04:12. **Hasi**: 00:15:48. **Bukatu**: 00:20:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Segan egiteko ondo zorroztu behar izaten zen tresna. Apopiloak Australiatik ekarritako sega bat erabiltzen zuen. Apopiloari buruzkoak kontatzen dituzte. Orduko segak nolakoak ziren kontatzen dute.

21. Sega estuak eta neurrira moldatutakoak

- **Erref**: URN-027/009
- **Iraupena**: 0:03:54. **Hasi**: 00:20:00. **Bukatu**: 00:23:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Oraingo segak non egiten dituzten aipatzen dute. Sega estuak lehen ere izaten zirela diote, Goierrikoak. Sega-jartzaileengana joaten ziren neurrira jartzeko.

22. Sega-jartzailearen lana

- **Erref**: URN-027/010
- **Iraupena**: 0:04:12. **Hasi**: 00:23:54. **Bukatu**: 00:28:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Sega-jartzailearen ingudea batzuetan trenaren topea izaten zen. Mailua berezia izaten zuen, sega moldatzeko. Sega lisoa edo kurbatua izan, alde handia egiten zuen. Etxeetan sega pikatu besterik ez zen egiten. "Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu" esaeraren esanahia azaltzen dute.

23. Sega pikatzea eta sega-motak

- **Erref**: URN-027/011
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:28:06. **Bukatu**: 00:29:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Sega pikatzeko, ingudeak eta mailuak gorabehera handia eragiten zuten. Belarretarako eta inistorretarako (garotarako) sega desberdina izaten zen.

24. Sega-apustuetako segak

- **Erref**: URN-027/012
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:29:41. **Bukatu**: 00:32:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Segan apustua pisura izaten zen. Nolako segak izaten ziren azaltzen dute.

25. Polipasoren sega-apustu handia

- **Erref**: URN-027/014
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:35:36. **Bukatu**: 00:38:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Sega-apustu gogoangarriaren berri ematen dute. Migel Irazusta, Polipaso, oso kirolari ona zela diote. Nafarrak jokoan beroagoak izaten direla diote. "Jokoa ez da errenta" esaera aipatzen dute.

26. Apustuak egitea, gazteen gozagarri

- **Erref**: URN-027/016
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:43:15. **Bukatu**: 00:46:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Ehun kilotako zakua jasotzea ohikoa izaten zen orduan. Orduko gazteen jaia hori izaten omen zen, apustuak egitea aizkoran, korrika eta halakoetan. Igande goizetan izaten ziren.

27. Gerra osteko ogiak: beltza eta "morteroa"

- **Erref**: URN-027/021
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:51:04. **Bukatu**: 00:53:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra ostean, kartillarekin etortzen ziren ingurukoak ogia erostera. Okinak ogi beltz borobilak eta "mortero" izeneko ogi eskasak saski batean ekartzen zituen bentara. Jolasean aritzen ziren umeak "mortero" ogi harekin, eta gero, jan egiten zuten. Orain lehen baino askoz txarrago jaten dela diote, dena den.

28. Etxeko astoak nolakoak ziren

- **Erref**: URN-027/022
- **Iraupena**: 0:04:17. **Hasi**: 00:53:34. **Bukatu**: 00:57:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Errazionamendutik sobratutakoa, bentan geratzen zen. Ogi bila ilunpean pasatutako beldurrak kontatzen dituzte. Astoak oso langileak eta egoskorrak izaten zirela diote. Pasarte batzuk kontatzen dituzte.

29. Errepidearen inaugurazioa

- **Erref**: URN-027/023
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:57:51. **Bukatu**: 00:59:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:
Bertako jendea ibiltzen zen bentan. Errepidearen inaugurazioa egin zutenean, berriz, jendetza izan zen. Ordukoa kontatzen dute.

30. 1962an errepidea eskuz egin zuten

- **Erref**: URN-027/024
- **Iraupena**: 0:04:11. **Hasi**: 00:59:04. **Bukatu**: 01:03:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:
Auzorako errepidea 1962an egin zuten. Hernanin Otxotorena izeneko taxilari bat zegoen eta beharra zegoenean gurdibidean ere igotzen zen. Errepidea goldearekin, aitzurrekin, palekin, idiekin eta gurdiekin egin zuten, eskuz, auzolanean.

31. Errepidea egiteko "ahaldia"

- **Erref**: URN-027/025
- **Iraupena**: 0:04:18. **Hasi**: 01:03:15. **Bukatu**: 01:07:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Errepidea egiten auzoko gizonezkoak aritu ziren. Ahaldia esaten zioten auzolanari. Jatordu ederra egiten zuten ardoarekin. Ogia, gazta eta txokolatea jaten zituzten sarri.

32. Bentako amona Mari Kruz

- **Erref**: URN-027/026
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 01:07:33. **Bukatu**: 01:10:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Mari Kruz izeneko amona hil zenean, hiru urte zituen Tomasek. Bezero batek aitonarekin apustua egin zuenekoa kontatzen dute. Amonaren gaztainerreak eta almendra zuriak ditu gogoan Juan Bautistak.

33. Txerrikiaren onena, apaiz, mediku eta albaitariarentzat

- **Erref**: URN-027/028
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 01:11:54. **Bukatu**: 01:13:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Bentan sei-zazpi txerri hiltzen zituzten. Apaiza, medikua eta albaitaria etortzen zirenean, txerrikiaren onena haiek jaten omen zuten.

34. Ura etxera ekartzeko moduak

- **Erref**: URN-027/029
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 01:13:40. **Bukatu**: 01:17:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Urik ez zeukaten etxean baina argia bai, nahiz eta oso eskasa izan. Astoz, eskuz edo makilan ekartzen zuten ura marmitetan, eta baldeetan uztai baten laguntzaz ere bai. Lehenagokoek buru gainean erabiltzen omen zuten zestoa. "Beharrak erakusten du" esaera azaltzeko pasarte bat kontatzen du Juan Bautistak.

35. Ingurukoekiko hizkera desberdina

- **Erref**: URN-027/031

- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 01:19:05. **Bukatu**: 01:21:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Soldadu joan zenean ikasi zuen Juan Bautistak gazteleraz. Hernanin eta Andoainen eta beste leku batzuetan ez dela berdin hitz egiten diote. Inistorra, garoa eta iratzea jartzen dituzte adibidetzat.

36. Hika edo zuka, txikitan ikasten denaren arabera

- **Erref**: URN-027/032
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 01:21:21. **Bukatu**: 01:22:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Hika, zuka eta berorika nori egiten zieten kontatzen dute. Txikitan elkarrekin nola hitz egiten duten, horrek erabakitzen duela diote.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-09

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com